TOLOSAKO UDALA

TOLOSA2015

# KULTURAKO EKINTZAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN ARAUTEGIA

# NORMATIVA DE CONCESION DE SUBVENCIONES PARA FINANCIAR ACTIVIDADES CULTURALES

1.- Eskumena

Arautegi hau Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikuluak ematen dituen eskumenei jarraituz eta Korporazio Lokaleko Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengoen arabera onartzen da.

1.- Competencia

La presente normativa es aprobada en virtud de las competencias concedidas por los artículos 25 y 4.1 b de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, así como el artículo 23 y sucesivos del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales.

2.- Helburua

Deialdi honen helburua hau da: Tolosako irabazi asmorik gabeko kultura elkarteek 2008an egingo dituzten jarduera eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

Jarduera horiek, betiere, bat egin behar dute Tolosako Udalaren egitasmoen helburuekin.

Deialdi honetan parte hartzen ez duten talde edo elkarteen egitasmo eta jarduerei ez zaie diru laguntzarik emango.

2.- Finalidad

La finalidad de esta convocatoria es la siguiente: fijar los criterios y concretar el procedimiento de ayuda económica a organizaciones culturales de carácter no lucrativo de Tolosa en el 2008.

Dichas actividades deberán ser acordes a las finalidades de los proyectos del Ayuntamiento Tolosa.

Los proyectos y actividades de los grupos culturales u organizaciones que no tomen parte en esta convocatoria no recibirán ayuda económica.

3.- Lagunduko diren jarduera motak

Diru laguntzak ondorengo jardueretarako eskatu ahal izango dira:

a) Tolosako elkarteen kulturako ohiko jarduerak.

3.- Tipos de actividades que recibirán ayudas económicas

Las ayudas económicas se podrán solicitar para las siguientes actividades:

a) Actividades culturales ordinarias de asociaciones de Tolosa.

b) Tolosan burutu nahi diren ezohiko edo aldian behingo jarduerak. Ezohikoak edo aldian behingoak diren ala ez udal kultur batzordeak erabakiko du.

b) Actividades de carácter extraordinario o esporádico a realizar en Tolosa. El carácter extraordinario o esporádico será decidido por la comisión municipal de cultura.

4.- Finantzazioa

Emango diren diru kopuruak urteroko udal aurrekontuaren araberakoak izango dira, eta Udalak ez du, horrez gain, beste diru laguntzarik emango.

Oinarriotan aurreikusitako diru laguntzak 2008ko ekitaldiko udal aurrekontuak onartu eta indarrean jarri ondoren emango dira.

4.- Financiación

Las cantidades económicas a subvencionar se ajustarán a lo dispuesto en el presupuesto municipal y el Ayuntamiento no aportará otras subvenciones.

Las ayudas económicas previstas en estas bases se concederán tras aprobar y entrar en vigor los presupuestos de 2008.

5.- Irizpide orokorrak

1. Diru laguntza hauen azken helburua dirurik irabazteko asmorik gabeko kultura zerbitzuak bultzatzea da.

2. Diru laguntza borondatezkoa da eta behin behinekoa; laguntza emateak ez dio Udalari hurrengo deialdietan ere diru laguntzak emateko derrigortasunik ekarriko.

3. Diru laguntza hauek beste batzuekin bateragarriak dira, baina aldez aurretik adierazi behar da jarduera horietarako beste erakunderen bati diru laguntza eskatu zaion ala ez. Edozein kasutan, diru laguntza guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiagokoa.

5.- Criterios generales

1.- El objeto último de la concesión de subvenciones es promover la oferta de servicios culturales sin ánimo de lucro.

2.- La subvención tiene carácter voluntario y eventual, y su concesión no implica para el Ayuntamiento ninguna obligatoriedad para las próximas convocatorias de ayudas económicas.

3.- Estas subvenciones son compatibles con subvenciones concedidas por otras entidades, pero deberá comunicarse previamente si se ha solicitado o no ayuda económica a alguna otra entidad para la misma actividad. En cualquier caso, la suma de todas las subvenciones nunca podrá ser superior al 100 % de los gastos.

6.- Eskatzaileak

Udalaren diru laguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte elkarteek:

a) Udalaren kultura egiturak eta helburuak kontuan hartuta jardun beharko dute elkarte eskatzaileek.

b) Elkarte eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute.

c) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen erregistroan erroldatuta.

d) Identifikazio Fiskalerako Kodea izan behar dute eta zerga betebeharretan egunean egon.

e) Elkartearen egoitza Tolosan izan behar dute.

f) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek, Udalarekin hitzartutako erabilera arauak zorrotz bete beharko dituzte.

Diru laguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

6.- Solicitantes

Para solicitar las ayudas económicas del Ayuntamiento, las asociaciones deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Las entidades solicitantes deberán actuar teniendo en cuenta las estructuras y los objetivos culturales del Ayuntamiento

b) Las entidades solicitantes deberán cumplir lo dispuesto en la ordenanza municipal de normalización del uso del euskara.

c) Deberán estar constituidas conforme a la legislación vigente y estar inscritas en el Registro de Asociaciones y Entes Culturales del Gobierno Vasco.

d) Número de Identificación Fiscal y estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

e) La sede social deberá estar ubicada en Tolosa.

f) Las asociaciones que hagan uso de algún local municipal deberán cumplir rigurosamente las normas de uso convenidas con el Ayuntamiento.

Los requisitos para acceder a la condición de beneficiario de estas subvenciones serán los dispuestos en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre.

7.- Eskaeren aurkezpena

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera orria bete behar da. Egitasmo edo jardueraren arduradunak **eskaera orri ofizialaren atal guztiak** bete beharko ditu eta, ondoren,

7.- Presentación de solicitudes.

Para efectuar la solicitud, se ha de cumplimentar la hoja de solicitud que figura en el anexo. El responsable del proyecto o de la actividad deberá cumplimentar **todos los apartados de la hoja oficial de solicitud** y

Udaleko erregistroan aurkeztu.

presentarla en el registro municipal.

Diru laguntzak eskatzeko epea urteroko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hastia 20 egunekoa izango da.

El plazo de solicitud de subvención será de 20 días a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria anual en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Eskaera orri ofizialaz gain, elkarteak aurkez ditzake bere jarduerari buruzko agiri osagarriak.

Además de la hoja de solicitud oficial, las entidades pueden presentar documentos complementarios sobre sus actividades.

Diru laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenek, eskaera orri ofizialaz gain, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako kultur elkarte edo erakundeen erregistroan erroldatuta daudela ziurtatzen duen agiria.
- Elkartearen estatutuak.
- Elkartearen *curriculum vitae*-a: orain arte egindako jarduerak, helburuak, giza baliabideak, baliabide materialak eta abar.
- Arduradun(ar)en nortasun agiriaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

Quienes pidan la ayuda económica por primera vez, además de la hoja de solicitud oficial, deberán presentar también los siguientes documentos:

- Documento acreditativo de estar inscritos en el registro de Entes y Sociedades Culturales del Gobierno Vasco.
- Los estatutos de la entidad.
- *Curriculum vitae* de la entidad: actividades realizadas hasta el momento, finalidades, medios humanos, medios materiales, etc.
- Fotocopia del Documento de Identidad de(los) responsable(s).
- Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

8.- Diru laguntzak emateko ebaluazioa eta irizpideak

Kultur batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak diktaminatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, txostena egingo du, behin betiko erabakia hartzeko.

Dena den, diru laguntzak ematerakoan

8.- Evaluación y criterios de concesión de subvenciones.

La comisión correspondiente estudiará y evaluará las solicitudes, y decidirá las prioridades y las cantidades a conceder. A continuación, hará un informe para adoptar la resolución definitiva.

No obstante, se tendrá en cuenta lo dispuesto

TOLOSAKO UDALA

TOLOSA2015

Emakumeen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako Udal Ordenantzan xedatutakoa kontuan izango da.

Diru laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

**OHIKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK**

- Elkartearen sendotasuna eta herrian daukan pisua..20 puntu
- Atal teknikoen, barne antolakuntzakoen eta administratiboen kalitatea....................20 puntu
- Elkartearen urteko egitasmoan kultura bultzatzeko egindako lana eta Tolosako Udalarekiko elkarlana.............60 puntu

**EZOHIKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK**

- Egitasmoaren edo jardueraren kalitatea.
- Jardueraren helburuak eta izaera.
- Herritarrentzat izatea eta aurkeztutako egitasmoa herritarrei zabaltzea.
- Taldearen ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna.
- Partehartzaileen kopurua, iraupena, jardueraren esparrua eta zabalkundea.
- Kalitatea atal teknikoetan, barne antolakuntzakoetan eta administratiboetan.
- Jardueraren kalitatea
- Jardueraren finantzatze maila

en la Ordenanza Municipal de Igualdad entre Mujeres y Hombres.

Los aspectos que se valorarán para conceder las ayudas económicas son los siguientes:

**AYUDAS PARA ACTIVIDADES ORDINARIAS**

•Fortaleza de la entidad y su entidad en el municipio............................20 puntos.

•Calidad de las secciones técnicas, organizativas
internas y administrativas .... 20 puntos.

•Trabajo de fomento de la cultura en el su proyecto anual de actividades y colaboración con el Ayuntamiento ..60 puntos.

**AYUDAS PARA ACTIVIDADES EXTRAORDINARIAS**

- Calidad del proyecto o actividad.
- Carácter y objetivos de la actividad.
- Dirigida y abierta a toda la ciudadanía.
- Trayectoria, continuidad y estabilidad de la asociación.
- Número de participantes, duración, ámbito y promoción de la actividad.
- Calidad en los aspectos técnicos: organización interna y administrativa.
- Calidad de la actividad.

- Jarduera antolatzeko azpiegitura eta giza baliabideak
- Tolosako herria nabarmentzeko eta ezagutzera emateko baliagarri izatea.
- Bere jarduera esparruan euskara erabiltzeko egindako ahalegina.

Elkarteak jarduerarako jasotzen dituen diru laguntza publiko edo pribatuen kopurua ez da inoiz izango jardueraren kostua baino handiagoa. Dagokion aurrekontu partidan gehienez jarria dagoen diru kopurua bukatu artean emango dira laguntzak.

Proposatzen den diru laguntzaren kopuruak ez du programaren aurrekontuaren % 50 gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Aparteko kasu horiek Kultura batzordean eztabaidatu eta onartuko dira.

9.- Diru laguntzen ordainketa

Diru laguntzak bi epetan ordainduko dira:

Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru laguntzaren %75 ordainduko zaio. Gainerako %25 jarduera edo egitasmoaren memoria jasotakoan ordainduko da.

Memoria hori urte bakoitzeko **abenduaren 15a** baino lehen aurkeztu beharko dute elkarteek. Memoria horretan gastuen ordainagiriak eta aurreikusitako jarduerak burutu direla egiaztatuko duten agirien dossierra sartuko da (kartelak, argitalpenak, egunkarietako agerpenak eta abar). Kultur teknikariak sinatutako aldeko txostena ere beharko da.

Memoriarekin batera, elkarteak agiri hauek ere

- Nivel de financiación de la actividad.
- Infraestructura y recursos humanos necesarios para la organización.
- Que sea válida para resaltar y dar a conocer el municipio de Tolosa.
- Esfuerzo realizado por la entidad para impulsar el uso del euskera en su ámbito de actuación.

La ayuda económica pública o privada que reciba la entidad para la actividad, jamás será superior al costo de dicha actividad. Las ayudas serán concedidas hasta la finalización de la cantidad dispuesta en la partida presupuestaria correspondiente.

La ayuda no excederá nunca del 50 % del presupuesto del programa salvo casos excepcionales que se tratarán y aprobarán en la Comisión de Cultura.

9.- Abono de las ayudas económicas.

Las ayudas económicas se abonarán en dos plazos: junto con la notificación de la resolución el 75% de la ayuda económica total. El 25% restante, tras la entrega de la memoria de actividades.

Dicha memoria se deberá presentar antes del 15 de diciembre, y se adjuntará el dossier con los documentos acreditativos de los gastos realizados, así como de las actividades realizadas (carteles, publicaciones, información difundida por la prensa, etc.). Será necesario también el informe favorable suscrito por el técnico de cultura.

Asimismo, deberá presentar la siguiente

aurkeztu beharko ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, elkarteak zerga obligazio formalak betetzen dituela azalduko duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarteak erakunde horrekiko zorrik ez daukala adierazten duena.
- Udalaren diru laguntzaren kopurua adinako faktura originalak, eskatzailearen izenean sortuak.

Bigarren ordainketa, aurreko tramite eta betebehar guztiak bete ondoren egingo du Udalak.

Agiriok aurkezten ez badira, elkarteak galdu egingo du onartutako zenbatekoa.

Ezohiko kasuetan udal kultur batzordeak diru laguntzen ordainketa beste moduren batera egitea erabaki dezake.

documentación:

- Certificado actualizado de la Diputación Foral de Gipuzkoa donde conste que la asociación está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social donde se manifieste que la asociación no tiene deudas pendientes con dicha entidad.
- Facturas originales en nombre del solicitante que asciendan en total a la cantidad concedida por el Ayuntamiento como subvención.

El Ayuntamiento efectuará el segundo abono una vez efectuados los tramites anteriores.

Si no se presentaran dichos documentos, la entidad perderá la cantidad asignada.

En casos excepcionales la Comisión de Cultura podrá decidir que el pago de la ayuda económica se realice de otra manera.

10.- Publizitatea

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; ele bitan ere egin ahal izango da, beti ere euskarari lehentasuna emanez. Tolosako Udalaren laguntza nahitaez adierazi beharko da.

10.- Publicidad.

La publicidad de las actividades a través de ayuda económica se realizará en euskera; también podrá hacerse en bilingüe, dando en todo momento prioridad al euskera. La ayuda del Ayuntamiento de Tolosa se indicará de forma expresa.

11.- Baldintzak ez betetzea

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez

11.- Incumplimiento de las condiciones establecidas.

badira, diru laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, aurrez jasotako diru guztia itzuli egin beharko du elkarteak.

12.- Interpretazioa

Oinarrion interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak udal kultur batzordeak erabakiko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Udalaren helburuetara modu progresiboan iristeko, 2008. urtean kontuan hartuko da, diru laguntzen kopurua zehazterakoan, aurreko urtetan elkarte bakoitzak jasotakoa, elkarteen proiektuetan etenik egon ez dadin. Kontuan hartuko da, baita ere, elkarteak aurreko urtean egindako jardueren balantzea.

Si no se cumplen las condiciones establecidas en estas bases no se concederá la ayuda económica y, además, la asociación deberá devolver lo percibido previamente .

12.- Interpretación.

Las dudas que puedan surgir en la interpretación o aplicación de estas bases serán resueltas por la Comisión municipal de Cultura.

DISPOSICIÓN FINAL

Para poder alcanzar progresivamente los objetivos del Ayuntamiento y, asimismo, no se paralicen los proyectos de las asociaciones, para determinar las ayudas a conceder, en el 2008 se tendrán en cuenta, por una parte, las cantidades abonadas a cada asociación los años anteriores y, por otra, el balance de actividades del año anterior.

TOLOSAKO UDALA

TOLOSA2015

# KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK 2008

## —ESKAERA ORRIA—

### 1. ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

| | |
|---|---|
| **Izena** | |
| **Helbidea** | |
| **P.K.** | **Herria** |
| **Telefonoa** | **Faxa** |
| **Helbide elektronikoa** | **Web orria** |
| **Identifikazio fiskaleko zk.** | |
| **Elkarteen erroldako zk.** | |
| **Kontu korrontearen zk. (20 digito)** | |
| **Titularra** | |

### 2. LEGEZKO ORDEZKARIA

| | | |
|---|---|---|
| **Izena** | | |
| **Nortasun agiria** | **Kargua** | **Sexua** |
| **Helbidea** | | |
| **P.K.** | **Herria** | |
| **Telefonoa** | **Faxa** | |

## 3. ELKARTEAREN DATUAK

| Bazkide kopurua | Noiz sortua? |
|---|---|
| Kontratatutako langileak | Herria |

## 4. ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZEN ZENBATEKOA

| Elkarteak 2008an antolatu nahi dituen kultur jarduerak | Programaren kostua eurotan | Eskatutako zenbatekoa eurotan |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| GUZTIRA | | |

## 5. ELKARTEAREN 2008KO DIRU SARRERA ETA GASTUEN AURREKONTUA

| DIRU SARRERAK | EUR | GASTUAK | EUR |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| GUZTIRA | | | |

• Aitortzen dut ordezkatzen dudan erakundeak deialdiko baldintza guztiak betetzen dituela.

• Hitz ematen dut deialdiko arauak beteko ditugula, eta, halaber, eskatuko zaigun informazioa eta dokumentazioa emango ditugula.

• Deialdian eskatutako dokumentazioa eransten dut.

• Jatorrizko programa aldatuz gero, behar hainbateko lehentasunarekin jakinaraziko diot Departamentuari eta egindako aldaketen berri emango diot.

• Zuzendaritza Batzordea, estatutuak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, web orria, eta abar aldatuz gero ere, berdin jokatuko dut.

Tolosa, 2008ko ______________________ren _____a.
Sinadura eta zigilua

TOLOSAKO UDALA

TOLOSA2015

# SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE CULTURA 2008

## —HOJA DE SOLICITUD—

### 1. DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

| | |
|---|---|
| **Nombre** | |
| **Dirección** | |
| **C.P.** | **Localidad** |
| **Teléfono** | **Fax** |
| **Dirección electrónica** | **Página web** |
| **NIF** | |
| **Nº Censo de Asociaciones** | |
| **Nº cuenta corriente (20 dígitos)** | |
| **Titular** | |

### 2. REPRESENTANTE LEGAL

| | | |
|---|---|---|
| **Nombre** | | |
| **DNI** | **Cargo** | **Sexo** |
| **Dirección** | | |
| **C.P.** | **Localidad** | |
| **Teléfono** | **Fax** | |

## 3. DATOS DE LA ASOCIACIÓN

| **Número de miembros** | **Fecha de creación de la asociación** |
|---|---|
| **Personal contratado** | **Localidad** |

## 4. SOLICITUDES DE SUBVENCION

| **Actividades culturales previstas para 2008** | **Coste de cada actividad** | **Subvención que se solicita** |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| **TOTAL** | | |

## 5. PRESUPUESTO DE GASTOS E INGRESOS DE LA ASOCIACION PARA 2008.

| **INGRESOS** | **EUR** | **GASTOS** | **EUR** |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| **TOTAL** | | | |

• Declaro que la asociación a la que pertenezco cumple todas las condiciones establecidas en la normativa de subvenciones.

• Me comprometo a cumplir las normas de la convocatoria, así como a aportar toda la información y documentación que se nos solicite.

• Adjunto la documentación establecida en la normativa.

• En el caso de que haya cambios en el programa detallado, me comprometo a comunicarlos al Departamento de Cultura con la debida antelación.

• Actuaré de la misma forma en el caso de que haya cambios en la dirección de la asociación, estatutos, dirección, teléfono, correo electrónico, página web, etc.

Tolosa, a ......... de .......................... de 2008.
Firma y sello